

Jon Abril Olaetxea  
Elhuyarreko koordinatzaile nagusia



## 50 urte aurrerago

50 urte bete ditu Elhuyarrek aurten. Ez da marka makala, euskararen eta zientziaren sustapenerako jaiο eta bere egitekoa beste esparru ugaritara zabaltzea lortu baitu ibilbide horretan. Orain 50 urte euskara plazara ateratzeko ahalegin ausarta egin zuen belaunaldi hark merezi du aitortza eta goresmena. Belaunaldi gazteagoek hartu dugu erreleboa, eta euskarari arnasa berria emateko gogo biziz jarraitzen dugu, zientzian zein bestelako diziplinetan ere. Hiztegegintza, itzulpengintza, euskara-planak eta euskararen sustapenerako egitasmoak, adimen artifiziala eta hizkuntza-teknologiaren garapena, berdintasuna, partaidetza, komunikazio-zerbitzuak, kultura zientifikoaren zabalkundea eta STEAM-hezkuntzaren sustapena ditugu, gaur-gaurkoz, gure lan-ildoen artean, gizartea eraldatzea helburu. Ehun laguneko lantalde profesional gaitua, euskara ertz askotatik garatzeko lanean.

Euskararen biziberritzeak bezala, Elhuyarrek ere ez du bide erraza izan 50 urteotan, eta egunez egun borrokatu behar du esparru berrietara iristen jarraitzeko, baliabideak lortzeko, eta bere lana ikusgarri egiteko. Baina, era berean, Elhuyarren komunitatea osatzen dugun bazkide, harpidedun, bezero, babesle eta langile guztiak konbentziturik gaude ezinbesteko ekarpena egiten dugula. 50 urteotan Elhuyarren ondoan izan zaretenoi ere eskerrona baino ezin dizuegu eman urteurren honetan. Gure xedeari jarraikiz, *euskaratik, teknologiaz eta ezagutzaz baliatuz eta zientzia zabalduz, gizarte aktibo, kritiko eta berdinzalea eraikitzeko* lanean jarraitu asmo dugu beste 50 urte aurrerago ere.

Eta, euskarak bezala, zientziak ere ezagutu ditu aurrerabide handiak 50 urteotan. Ale berezi honetan ere zientzia da ardatz nagusia, baina begiratua luzatu nahi izan dugu, 50 urte atzera bezala, 50 urte aurrerago ere, gure gizarteak dituen erronkenezat erantzun bila, denbora honetan guztian Elhuyarren egitekoa izan denari jarraikiz: galdera berriak egin, jakintza sustatu eta zabaldu. Ez dugu alferrik *ezagutzaz aldatzea* lelotzat. Zorionak, Elhuyar! Eta zorionak, elhuyarkide guztiok! ●